

B

BARREN

TOKIKOM

“Abiadura eta arriskua gustuko ditut”

Julia Agirre,
kart gidaria



Elkarlana



Gipuzkoako Foru Aldarbaitu
Euzkoaren Foru Aldarbaitu



 kutxa



ADEGI



GASTEIZKO ESPETXEA
KULTURAREN ENTIKETA



Gipuzkoako Foru Aldarbaitu
Euzkoaren Foru Aldarbaitu



gipuzkoa **aurrera**

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

Igo trenera!

1931n ikusi zuen Txirritak Norteko Ferrokarrila, “goizian irten Irundik eta iluntzerako Madrilá”, eta sekulako adelantua gainera! Geroztik, asko aldatu da kontua (beno, Euskotrenen ez hainbeste...). Baina funtsean bat eta bera da ordukoa eta gaurkoa, hiruko triangelua: trenbidea, trena eta bidaiaria; bertsolaria, bertsoa eta entzulea. Esentzia galdu gabe garai berrietara hobekien egokitzen asmatu duen kultur espresioetako bat izango delako bertsolaritza, atzetik zetorren bideari jarraituz, geltokiz geltoki, aurrera egiteko ausardia izan duena.

Bideko geltoki bat gehiago baino ez da txapelketa, inola ere ez helmuga, baina aitortu behar zaio erakarpen gaitasuna, oso kultur ekintza gutxi bezala milaka begi eta belarri, eta hainbat mikro eta kamera hurbilarazteko ahalmena. Modan jartzen da. Eta nik neuk bertsoaren futbolizazioa begi onez ikusten ez badut ere, beharrezkoa da esparru berrietara zabaltzea. Hau da, produktu iragankor eta digeritzeko erraz bat saldu gabe, zer garen argi erakutsiaz, eskua luzatu eta bertsoa horren urrun ikusten duten horiei ongietorria ematea.

Ez dadila izan euskalduntasunaren aldarri, ez modan dagoelako. Txapelketako saioretan ikusi nahi nituzke gotikoak, punkyak, gorbatadunak... Etorri, entzun, gozatu edo aspertu, eta zeuk erabaki itzuli ala ez! Baina hautsi estereotipoak, ausartu probatzera, igo bertsoaren trenera!

Donostian izango duzue domekan aukera polita, han erabakiko baita zein zortzi bertsolarik kantatuko duten BECen. Eta, bertan izango da gure herrikide Uxue Alberdi, abenduaren 13ko finalaren atarian, pasa ala ez pasa. Elgoibarko lehen bertsolari finalista izan liteke, alajaina... Aupa Uxue!

Mikel Olaizola



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Etorri, entzun, gozatu edo aspertu, eta zeuk erabaki itzuli ala ez!
Baina hautsi estereotipoak, ausartu probatzera!”**

**ALKORTAKO
IGOERAREN
BIDEOA
JARRI DUGU!**




**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



JASONE OSORO

IDAZLEA



“Ume batek ematen duena, ez du beste ezerk ematen”

Haurdun geratu zenean kezkak eta zalantzak argituko zizkion liburuen bila hasi zen Jasone Osoro, eta euskaraz ezer gutxi zegoela idatzita konturatu zen. Hutsune hori betetzeko asmoz idatzi du *Bi marra arrosa* liburua. Bere lehenengo haurdunaldiari buruzko liburua da, eta bizipen propioak kontatzen ditu idazle elgoibartarrak. Haurdun daudenen-tzako edo aita izango diren gizonentzako interesgarria izango delakoan, haurdunaldiari buruzko hainbat testigantza jaso ditu modu erraz eta laburrean. Txalaparta argitaletxearekin atera du liburua, eta aste honetan bertan egin du aurkezpena.

Bi marra arrosa liburuak aurkeztu berri duzu. Kontaiguzu apur bat zeri buruzkoa den.

Nire lehenengo haurdunaldiari buruzko liburuak da. *Prediktor*-ean bi marra arrosa azaltzen diren momentuan hasten da liburuak, hau da, haurdunaldi probak positibo ematen duenean. Nire lehenengo haurdunaldiari buruzko testigantza da. Inork ez dezala pentsatu haurdunaldiari buruzko liburu entziklopedikoa edo medikuntza ikuspuntutik idatzitako liburuak denik! Oso pertsonala da. Haurdun zaudela jakiten duzunean sortzen diren kezkek, beldurak, pozak eta galderak jasotzen ditut. Gai asko daude, eta denak oso modu laburrean kontatu ditut. Bederatzi hilabeteko egunkari modukoa da. Kontuan eduki behar da nire haurdunaldia dela, eta haurdunaldi oso ona eduki nuela. Beste batzuk ez dira istorio honekin identifikatuko, baina oro har, gauza asko errepikatzen dira haurdunaldi guztietan.

Zelan erabaki zenuen haurdunaldiari buruzko liburu bat idaztea?

Haurdun geratzen zarenean, zalantza pila bat sortzen zaizkizu, eta nik liburuetara edota aldizkarietara jo nuen besteen esperientziak irakurtzeko. Eta euskaraz gauza oso gutxi zegoela konturatu nintzen. Arantza Iturberen *Ai ama* liburuak irakurrita neukan, baina hori gehiago da umea jaio ondorenengo bizipenei buruzkoa. Hutsune bat zegoen. Gari Berasaluze idazleak, Txalapartako editore izandakoa, gauza bera komentatu zidan, eta bera jarri zen haremanetan gaur egungo Txalapartako editorearekin. Deitu egin zidaten, eta animatu egin nintzen.

“Bi marra arrosa ‘prediktor’-ean azaltzen diren momentuan hasten da liburuak”

Liburu autobiografikoa da. Zaila egin zaizu zuri buruz idaztea?

Libururik zailena eta aldi berean errazena izan da. Erraza izan da nire bizipenak direlako, eta ez neukalako ezer sortu beharrik. Nik bizi izandakoari forma ematea zen, eta alde horretatik *erraza* izan dela esan daiteke. Baina

aldi berean zaila, nire bizitza delako; nirea eta nire bikotekidearena. Noraino kontatu? Autozentsura moduko zeozer ipintzen diozu zeure buruari, haurdunaldia oso gauza intimoa delako. Kontatu nahi nuen, baina frenoari ematen nion. Irakurlearen lekuan jarri naiz, eta, azkenean, gehiena kontatu egin dut.

Zuk zer sentitu zenuen prediktorrean bi marra arrosa ikusi zenituenean?

Lehenengo poza, eta gero, beldurra. Umearen bila baldin bazoaz, lehenengo poza sentitzen duzu, dudarik gabe. Gero, hotzean pentsatzen duzunean hasten dira galdera guztiak, eta ez daukazu erantzunik. Ezjakintasunak alde batetik ilusioa ematen du, baina beste alde batetik, kezka. Ardura berri bat dator, eta ume bati bizitza eman behar diozu. Alaba izateari ez diozu lagatzen, baina ama izatera pasatzen zara. Nire ustez, denok daukagu Peter Pan txiki bat barruan, eta ez dugu erabat hazi nahi. Zure bizitzaren arduraduna zara, baina ama eta aita hor daude behar duzunerako. Bat-batean, zu izango zara beste pertsona baten erantzulea eta horrek bertigoa ematen du. Peter Pan sindromea ahaztu, eta heldu bihurtu behar duzula konturatu zara.

Emakume askok diote ama izatea munduko gauzarik onena dela. Zer uste duzu?

Topikoa dirudi, eta haurdun ez daudenek askotan ez dute ulertzen, baina ama izatea gauzarik onenetakoa dela esango nuke. Gogorra ere bada, baina ume batek ematen duena, ez du beste ezerk ematen. Umeekin ikasten da bizitzako detaile txikiak baloratzen. Umeak hazten eta ikasten ari diren heinean, mundua deskubritzen dute, eta zuk eurekin batera deskubritzen dituzu, berriz, gauza txiki pila bat. Eta, azken batean, detaile txikiak ematen dute zoriontasuna.

Estilo diferenteak lantzen dituzu zure liburuetan. Zein gustatzen zaizu gehien?

Ez dakit! Generoak baino, kontatzen duzunak dauka garrantzia, eta hori gustatu behar zaizu. Nik idatzi dudana proiektu bakoitzan nire intereseko gaiak buruzkoa izan da, eta momentu horretan zer kontatua neukalako idatzi izan dut.

Gazte literaturan, Ezekiel argitaratu berri duzu. Nola jaio da Ezekiel?

Askotan esaten zidaten *Jara* neskentzat zela, eta arantza hori hor neukan. *Ezekiel* sortu nuen. Jararen adin berekoa da, baina mutila. Hormonen alterazioa jasaten dihardu, eta

bere adineko edozein gaztek dituen kezkek dauzka. Bera eta hiru lagun dira protagonistak. Inork ez dio neska bati muxurik eman oraindik, eta apustua egiten dute, ea nor izango den lehenengoa. Hori da abiapuntua.

“Umeekin detaile txikiak baloratzen ikasten da, eta horiek ematen dute zoriontasuna”

Ezekiel eta Jara ez dira ohiko izenak, ezta zure bi umeenak (Duna eta Edith) ere. Nola aukeratu dituzu izenak?

Izenari garrantzi handia ematen diot. Izenak markatzen du, nolabait, pertsonaren izaera. Nire ustez, ez da gauza bera Amaia edo Edith deitzea. Alde horretatik, izen bereziak gustatzen zaizkit liburuen protagonistentzako, eta nire bi alabei ere izen bereziak jarri dizkiet. Jararen kasuan, erraz identifikatzen den izen bat nahi nuen, eta, aldi berean, izaera propioa edukiko zuena. Ezekielekin gauza bera. Izenak berak indarra dauka, eta portadan ez daukat gehiago jarri beharrik. Itoizen disko batetik ateratu nuen. Ezekiel izeneko mutil baten bizitza kontatzen du diskoak hainbat abestitan. Oso litoizalea naiz, eta gaur hartan ere atentzioa eman zidan izen horrek.

Nolako publikoa dira gazteak?

Nire esperientzia oso ona izan da. Publiko zaila da, adin tarte horretan ez zailako gustatzen irakurtzea eta aisialdia beste modu batean ulertzen dutelako. Baina, aldi berean, publiko leiala da. Jararekin asko identifikatzen dira gazteak, edozein nerabek dituen kezkek jasotzen hiru liburutan, eta hori asko gustatzen zaie.

Etorkizunerako asmoak?

Ama izatea, amatasun baxa amaitu arte behintzat. Literatura aldetik badauzkat proiektu batzuk, baina momentuz ez nago ezertan sartuta. Idaztetik bizitzea zaila da, eta euskaraz are gehiago, baina ez dut sekula pentsatu idaztetik bizitzea. Ez naiz gauza bakar batean zentratuta egotekoa.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gaztelekua

Udal gazteria zerbitzuak, gaztelekua nerabeen aisialdian duen garrantziaz oharturik, egutegi eta ordutegi zabala eskaintzearen aldeko apustua egin du.

Gaztelekua, irailetik uztailera bitartean irekitzen da, asteartetik igandera, 17:00etatik 20:00etara; ostiraletan eta larunbatetan, berriz, 21:00ak arte egoten da zabalik.

Oporraldian (Gabonetan, Pazko Astean eta udan) ere, gazteek denbora libre gehien dutenean, ematen da zerbitzua, beraiekin lan egiteko aukera aproposa delako.

Horrela, esfortzu berezia egiten da, egutegiak eta ordutegiak opor garaiko eskaintza berezira moldatzeko (irteerak, txangoak, udalekuak eta abar).

Beraz, urteko jai egun ofizial gutxi bazuetan izan ezik, gainontzeko egunetan gaztelekua zerbitzua ematen die 13-18 urteko nerabeei.

Gaztelekuan hezitzaile taldeak egiten du esku-hartze lana, nerabeekin eraikitzen duten harreman hezitzailean oinarritzen dena, elkar ezagutzuz, norbere buruaren ezagutza bultzatuz, autonomia garatuz, hainbat trebetasun garatzeko aukera emanez, jarrera kritiko eta arduratsuak landuz eta abar.

Gaztelekua, azpiegitura ez ezik, zerbitzu sozio-hezitzailea ere bada.

Gazteria Sailak lanean dihardu aukera egonkor eta etengabea emateko; haur, nerabe eta gazteek, bizitzako garai desberdinetan, gozatzeko eta garatzeko aukera izan dezaten.

Lan hori aisialdiaren esparruan egiten da, familian eta eskolan ematen den hezikuntzaren osagarri. Hala ere, aisialdiaren esparruan lan egiteak ez du esan nahi nerabeen aisialdiko denbora guztia hainbat ekintzaren, programaren edo eta zerbitzuren bidez bete behar denik.

Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuek helburu hezitzaileak dituzte. Zerbitzuotan, beraz, kontuan izaten dute norbanakoak familia giroan edo eta beste eremu informaletan egoteko beharra ere baduela, gizarteratze prozesu egoki bat izan dezan.

Horregatik, ikasleek jai daukaten guztietan ez da gaztelekua irekita egoten, hori ez datorrelako zerbitzuaren helburuekin bat.

Gainera, gaztelekua komunitatean integraturiko zerbitzua da, ez dago isolatua, etam integratutako zerbitzua denez, herriko dinamikarekin bat egiten du herriko festetan parte hartuz, opor garaian dinamika aldatuz, jai egun ofizialetan jai eginez eta abar.

Gai honen inguruan edo beste zerbairen inguruan informaziorik behar izanez gero, edo eta zalantzaren bat argitu nahi izanez gero, jo ezazue Udalaren Gazteria Sailera.

Maialen Aranguren (Elgoibarko Udalaren Gazteria Saileko teknikaria) ☎

Izarak leixuetan

Ion, zure idatzia irakurri nabanian neri ere “zer pentsatua eman zidan” derrepente burura, nere alabiaren eta bere bikotekidiaren sufrimentua etorri zitzaidan, jakinñan gaiñera zu bere lagunaren artean kon-

tatzen zaittula.

Ados nago zurekin, gure herrixan, pertsona asko dagola sufrizten, baiña puntualizazio batzuk egin nahi dizkizut errelexio modura.

Presuen eta senideen aurkako erasuak ugariak dirala diozu, eta egia da. Adibide moduan Hodei Otegiarena jartzen dozu, bai, ze gogorra eta tristea izan behar daban zure aitta atxilotu eta zuk besarkada bat ezin eman, hala ere seguru nago harrezkero besarkatzeko modua izango zabala. Pentsatu dozu, Ion, ze triste eta gogorra izango zan seme-alaba askorentzat euren begi aurrian aitta tiroz hiltzen ikusi debenean, ez besarkada eta ez agurrik egitako aukerarik gabe?

Aipatzen dozu senidiak jasaten dituen irain eta mespretxuak presuak bisittatzera kuan, arrazoia dakazu, eta ez dago esku biderik. Baiña baita gogoratu nahi dizut zuk eta nik ezagutzen dogun Josuk ez dakala bisittara juteko aukerarik; aldiz, egunero-egunero bere aitta bi tiroz erail zebeñ etxe aurreko espaloittik pasatu bihar dau, eta egunero bizi eta gogoratu, familiari bizitzia aldatu jakon abenduko egun mardikatu haura. Ez al zaizu iruditzen tortura gogorra dala?

Zuk diozun moduan, “aipatutako kasuok hainbat eta hainbat adibideren isla dira”, eta animatzen zaittut, “beldurak eta kezkek alde batera utzi eta gizarte honen gehingoak” hau ere nahi dabanez, “ETA, Euskal Herriak ez du zure beharrik” jartzen daban beste izara bat zure leixuan dakazunaren ondoan esekitzera.

Maite Loiola ☎

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com


Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zaloe Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Noemi
Otegi

Aste honetako
Zozoak beleari atala
ahaztua izango nuen, ez balitz

izan Ainhoagatik eta zugatik, pittin, gauza asko aldatu baitira nigan azken ataletik gaur arte: ama naiz!!! Nola azalduko nizuke? Zenbat gauza aldatu diren nigan, gure azken elkarriketatik. Begirada ere desberdina daukat, batez ere alaba ondoan dudanean. Bere keinuak ezagutzen hasia naiz: kopetiluna, erdi irribarre eta irribarreak, gose-negarrak, edo garrasiak, baina denak nire alabarenak, denak ere barruraino sartu, eta ase uzten zaituzten sentimendu eta zirrarak. Ez dakit, Ainara, ikaragarrikoa da, nahiz eta bederatz hilabete luzeko epea eduki haurra datorrela jakiteko, ezin azaldu zer sentitzen den erditze gelan. Behin txikia niregandik aterata, nire gainean jarri zutenean, zein betea sentitu nintzen, osotua, ama nintzen, ama. Aitatxo ere alboan, begiak Dunak bezain zabal, eta bihotza nik bezain betea; elkarren proiektu handiena, geure-geurea.

“Zenbat gauza aldatu diren nigan: ama izan naiz!!!”

Duna txikiak etxea goitik behera aldatu du, dena sakonagoa da, hitz hauek ere barrenagotik irteten diren bezalaxe. Eta ia- ia ahaztu zitzaidan zita geneukala BARRENein, baina ez dut huts egin nahi izan, zurekin hemen hitz egitea gustatzen zaidalako. Hala ere, pasa azkar gure etxetik, Dunak berriro ere zure magalean egin nahi du lo, bere bizitzako lehen egunean egin zuen bezalaxe, goxo-goxo, lasai-lasai, izeba Ainararekin.



Ainara
Sedano

Zorionak, Noe, beste ezer baino lehen! Zain geunden duela egun batzuk, ea noiz jasoko genuen zuen deia, momentua heldua zela esanez. Pixka bat aurreratuko zen, pixka bat atzeratuko... Dena delakoa izan dela ere... polita zeunden erditu eta hurrengo egunean ikusi zintugunean! Zoriontasunak ematen duen makillajea naturala ote? Eta Dunari buruz, zer esango dizut bada? Elkar ezagutu genuen egunean, nire besoetan jaso eta berehala loak hartu zuen; izeko Ainara *kamelatu* du behin betiko!

“Ea ekartzen dizkiozun Dunari zenbait anai-arrebatxo”

Bisitan nengoela, zure eta senarraren (senarra! *Oh my god!!*) artean lehen ez zegoen zerbait ere nabaritu nuen. Ez nuke jakingo zer den esaten, baina edozer dela ere, ona zirudien.

Pozten naiz, Noe, Duna ondo eta erraz jaio delako, eta gurasoak pozik zaudetelako. Eta zure familiako martxa hartuz gero... ea ekartzen dizkiozun Dunari zenbait anai-arrebatxo! Adibidez... lau, sardiña-bakalau! Eta, bai, zure pentsamenduari aurre hartuko diot. Eta momentuz, nik behintzat, lehengusurik ez diodala ekarri behar argitzen dizut. Agian hurrengoa edukitzen duzunarentzako... lige bat fabrikatuko dut... baina hurrengorentzako! Nork dakit!

Eta zuri, Duna, momentuz tamainan nik irabazten zaitudan arren, zuk *kamelatu* egin nauzu lehenengo, eta erraz lortu duzu, gainera. Nagusitzen zarenean, aitari eta amari bake pixka bat emateko izeko Ainararen etxera etorri beharko duzu eta... orduan nik *kamelatuko* zaitut pizza eta Coca-Colarekin!

Ongietorri, Duna, mundu txoro honetara.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Udalak 14 bat milioi euroko aurrekontua izango du 2010. urtean, aurtengoa baino %14,95 txikiagoa

EAJ eta PSE-EEk onartu dute, eta Gobernu Taldeko EA abstenitu egin da



Elgoibarko Udalak 14.340.734 euroko aurrekontua izango du datorren urtean, hau da, 2009koa baino %14,95 txikiagoa. Azken bi urtetan Udal aurrekontutak behera egin du, eta 2006ko diru kantitatearen bueltan ibiliko da Udala datorren urtean. Bestalde, Kirol Patronatuak 1.067.577 euroko aurrekontua izango du (2009an baino %4,72 gutxiago), eta San Lazaro egoitzak 1.386.775 eurokoa (2009an baino %3,05 gehiago). Eguaztenean egin zuten osoko bilkura, eta EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten aurrekontua. EA, EB-Aralar eta PP abstenitu egin ziren.

Bittori Zabala, Ogasun Saileko zinegotziaren arabera, gastu arrunta %10 gutxitzen ahalegindu dira, eta aldi berean, legegintzaldiko proiektuei lehentasuna eman diete. Sarreren atalean, zergak eta tasak izoztu egin dituzte, zabor tasarena izan ezik (%6,4 igoko da). Bestalde, eraikuntzaren gaineko zergek eta aprobetxamendu urbanistikoetatik lortzen diren sarrerek behera egingo dute nabarmen. “Eraikuntzaren beherakadaren isla dira”, esan du Zabalak. Gastuari dagokionean, Udaleko langileen soldatei Udalhitz hitzarmenak ezarritako igoera aplikatuko zaie (%1), eta politikarien ordainsariak izoztu egin dituzte.

Inbertsio garrantzitsuenak
Hirigintza Sailaren inbertsioen artean, Aiestia-San Migelera edateko ura eramateko lanek izango dute diru gehien. 700.000 euro inbertitzeko aurreikuspena egin dute. Horietatik, 300.000 Foru Aldundiak ordainduko ditu; Gipuzkoako Urak enpresak beste 300.000; eta gainerakoa bizilagunek jarriko dute. Bestalde, 40.000 euro erabiliko dituzte Ermuaran-Sallobenteko bidegorriaren proiektua idazteko, 100.000 euro King-kong inguruko barandak berritzeko, eta 110.000 euro Altzolan inbertituko dituzte.

Aurrekontu apala
Udalak 2010erako onartu duen aurrekontua “apala” dela adierazi du Bittori Zabalak. Bizi dugun egoeraren ondorioz, “gerrikoa estutzea tokatzen da”, gaineratu du. Hala ere, Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa oso saneatua dagoela esan zuen. 2010ean amaituko dute maileguaren amortizazioa, eta orduan, Udalaren zorpetze maila zero izango da.

KONPARAKETA	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
GUZTIRA	13.115.406,29	13.903.531,50	14.344.089,52	16.216.029,91	17.106.661,16	16.861.269,81	14.340.734,39

Elgoibarko Udalak 2006an izan zuen diru kopuru bera izango du datorren urtean.

Lekua **King-Kong inguruko barandak**



Elgoibarko Udaleko langileak King-Kong inguruko barandak aldatzeko lanetan hasi dira. Herriko beste hainbat zonaldeetan egin duten bezala, King-Kong aldean zahartuta eta egoera txarrean zeuden barandak kenduko dituzte, herdoiltzen ez diren baranda berriak jartzeko. Datorren urterako aurrekontuen arabera, 100.000 euro erabiliko dituzte barandak berritzeko.

Zenbakia **4.300**

Elgoibarko Udalak euskarazko produktuen katalogoaren 4.300 ale banatuko ditu. Gehienak etxeetako postontzietan lagako dituzte, eta beste ale batzuk liburu eta jostailu-dendetan egongo dira. Gurasoentzako eta 16 urtera artekoentzako produktuak biltzen ditu gidak. Urte garai honetan seme-alabei edo inguruko ei euskarazko liburuak, bideoak edota jolasak oparitzeko ideiak aurkitu daitezke katalogoan.

Irudia **Tratu txarren kontra**

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna izan zen eguaztenean, eta Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, hainbat ekitaldi egin zituzten herrian, tartean, kontzentrazioa. Udaleko agintariak eta hainbat herritar bildu ziren Plaza Handian emakumeen kontrako tratu txarrak gaitzesteko. Bestalde, puntu moreen kanpaina jarri zuen martxan Berdintasun Sailak. Etxeetan eta lantokietako leihoeetan puntu moreen kartelak jartzea zen helburua, baina Elgoibarren puntu more gutxi jarri zituzten. Horrez gain, erasoan aurrean egin beharreko argibideekin liburuxka bana bidaliko dute etxeetara. Osoko bilkurak, bestalde, indarkeriaren kontrako adierazpen instituzionala onartu zuen. Bittori Zabalak emandako datuen arabera, Ongizate Sailean sei tratu txar kasu bideratu dituzte aurten; iaz lau. Sexu erasorik, bestalde ez da egon azken bi urteotan.



Abenduaren 1ean hasiko da jubilatuen astea

Datorren martitzenean, abenduak 1, hasiko da aurtengo jubilatuen astea. Txokolate-jana izango dute egun horretan jubilatuen egoitzan, 18:00etan. Hurrengo egunean, hilaren 2an, Gabonetako 30 otarre zozketatuko dituzte, eta abenduaren 3an 80 urtetik gorakoentzako bazkaria izango da. Abenduaren 5ean kina berezia egingo dute eta hilaren 6an hildako jubilatuei eskainitako meza berezia izango da San Bartolome parrokian.

Informazio mahaiak Hiesaren Nazioarteko Egunean

Abenduaren 1ean Hiesaren Nazioarteko Eguna izango da, eta Errotatxo drogomenpekotasun elkartek gaixotasunari buruzko informazio mahaiak jarriko ditu Plaza Handian.

Ekintzailetasunari buruzko jardunaldia abenduaren 1ean

“Ekintzailetasun senaren errealitatea” izenburupean, hainbat esperientzia trukatu dituzte abenduaren 1ean, IMHn. Xabier Zabaltza, Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko Berrikuntza zuzendaria, eta enpresa munduko adituak izango dira hizlariak. Mintegia 16:00etan hasiko da.

Odol ateraldiak egingo dituzte gaur arratsaldean

Gipuzkoako odol emileen bankua gaur arratsaldean etorriko da Elgoibarrera. Odol ateraldiak arratsaldeko 18:30etik aurrera egingo dituzte Elgoibarko Odol Emileen lokalean, Osasun Zentroaren aldamenean. Elkarteko arduradunek herritar guztiak animatu nahi dituzte odola ematera, baina, batez ere, gazteei dei egiten diete; 18 urte eginak dituzten gazteei, hain zuzen ere. 20:30era arte egongo da odola ematera joateko aukera.

Unibertsitateko ikasketa amaierako espediente onenen sariak banatu ditu Kutxak Gipuzkoan, eta 41 ikasletatik 27 neskak jaso dute saria.

Zergatik uste duzu ateratzen dituztela emakumezkoek nota hobeak?



Vanessa Nogales
29 urte, administraria

Gizonek ez bezala, neskek bi gauza batera egiteko ahalmena daukagulako! Hobeto antolatzen ditugu gure gauzak, eta gehiago saiatzen gara. Gainera, adin horretan neskek helduagoak dira, eta horrek ere laguntzen du. Hau ez da kontu berria, beti izan da horrela.



Gloria Aguayo
34 urte, etxeoandrea

Egiteko ditugun gauzetan atentzio handiagoa ipintzen dugulako. Mutilak ere argiak dira, baina gustatzen zaien gauzetan zentratzen dira. Hala ere, gizartea matxista da oraindik, eta lanerako nahiago dituzte gizonak. Badirudi emakumeok etxean egon behar dugula.



Igor Zorruga
23 urte, zerbitzaria

Ez dakit zergatik izango ote den, baina, egia da. Ni ikasle txarra nintzen, behintzat! Lehen gizonak joaten ziren lanera, eta emakumeak etxean geratzen ziren. Kontu zaharra da, baina enpresari askok idealizatuta daukate, eta errazago kontratatzen dituzte gizonak.



Rachid Zaroual
30 urte, igeltseroa

Neskek ikasteko gogo handiagoa izaten dutelako, normalean. Emaztea eta biok batera iritsi ginen Marokotik Euskal Herrira, eta gaztelera ikasten hasi ginen. Berak ni baino lehenago ikasiko du. Gogo handiagoa jartzen du, eta gehiago saiatzen da.

I. URTEURRENA

ANGELA BADIOLA SALEGI



*Nere begietan itzali den
azken argia
beste baten ezpainetan piztuko den
lehen irria izango da.*



2008ko azaroaren 29an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 28an, izango da 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Madalan eta Santa Ana kalean jarri dituzten jarleku indibidualek ez daukate erabilpenik:

“Norbaitek ikusi al du sekula norbait jarleku indibidualetan eserita? Nire ustez ez dauka zentzurik horrelako jarlekurik ipintzeak. Askoz erabilgarriagoak iruditzen zaizkit ohiko jarlekuak. Hurrengorako mesedez, kontuan hartzeko eskatu nahiko nuke”.



Plaza Txikian jendeak nahi duen lekuan aparkatzen du:
“Gero eta zailagoa da Plaza Txikian maniobrak egitea. Jende askok erdi-erdian lagatzen du autoa, eta gero ez da lekurik egoten buelta emateko, edota bi auto elkar-gurutzatzeko. Nire ustez, ez lukete laga behar Plaza Txiki erdian aparkaleku ilara bat sortzen”.



Mila esker Magosto egunean parte hartu zuten herritar guztiei, antolatzaileen partez:

“Beste behin ere, Magosto eguna oso ondo irten zen elgoibartarrei esker, eta, horregatik, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiegu zapatuan Nafarroa Plazara hurbildu ziren guztiei. Herritar horiek guztiak lanean jarraitzeko poza eta indarra ematen dizkigute, eta datorren urtean ere, bertan izango gara. Mila esker gaztainak jatera eta ardoa dastatzera etorri ziren guztiei”.



Zuen kezak, gaidarak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

X. URTEURRENA

ISIDRO MUGUERZA GARAGARZA



*Agur kuttun bat Isidro maitea
Aitona, aita, laguna
Senar, zintzoa eta jatorra
Langile, fin ta txukuna
Atsedeen-leku bihurtu dena*

*Zuretzat zure kutuna.
Txapel batekin amaitu, arren
Gure arteko jarduna.
Jakin ezazu guretzat beti
Zu zarela txapelduna.*

1999ko azaroaren 27an hil zen.

Zure familiak maitasunez



Olatz Oñederrak irabazi du Mugertza Krosseko kartel lehiaketa

Zortzi lan aurkeztu dituzte guztira

Olatz Oñederrak irabazi du 2010eko Nazioarteko Juan Muguerza krosseko kartel lehiaketa, *Ibilbidea* izeneko kartelarekin. Korrikalariak, helmuga eta ibilbidea islatu ditu irudian. Kartelean kolore marroia da nagusi, eta horrekin Mugertza Krossean izaten den lokatza irudikatu nahi izan du. 300 euro jaso ditu elgoibartarrak.

Olatz Oñederrak diseinu grafikoaren munduan egiten du lan, baina ez daukala lehiaketetan parte hartzeko ohitura handirik adierazi du, baina, orain dela urte batzuk Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkartearen logotipo lehiaketan parte hartu, eta irabazi egin zuen.

Mintxeta Atletismo Taldeak, Elgoibarko Udalak eta Udal Kirol Patronatuak estreinakoz antolatu dute lehiaketa, eta guztira zortzi lanek hartu dute parte.

Bestalde, 2010eko Mugertza Krossa urtarrilaren 24an jokatuko dela, Mintxetan.



Nazioarteko Xake Txapelketa jokatuko da abenduaren 10etik 17ra bitartean

Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 10ean hasiko da, Pleno Aretoan 12:30ean. Urtero bezala, nazioarteko xake jokalaririk garrantzitsuenetakoak izango dira Elgoibarren. Oleg Korneev izazko irabazlearekin batera, Zenon Franco paraguaiarra izango da aurten, Elgoibarko txapelketako lehenengo edizioko irabazlea. Gainerako partaideen artean, Ivan Salgado galiziarra bigarren postuan geratu da Turkian jokatutako Munduko txapelketan, 18 urtetik beherakoen mailan. Beratov 14 urteko bulgariarra eta Mirzoev errusiarra ere izango dira txapelketan. Abenduaren 17an amaituko dira partidak.

Abenduaren 7an emango dute telebistaz Pumphrey anaia indartsuen erakustaldia



National Geographic telebista kateak abenduaren 7an emango du Craig eta Paul Pumphrey anaiek Plaza Handian grabatu zuten indar erakustaldia. 2008ko azaroaren 15ean etorri ziren amerikar indartsuak Elgoibarrera, eta euren ikuskizunaz gain, Euskal Herrian ohikoak diren beste kirol modalitate batzuetan jardun zuten: harri jasotzen, enborrak aizkorarekin eta trontzarekin mozten, txinga eramaten eta herri kirolletako beste proba askotan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **3** – Salvatierra **1** (3. maila)
 Oriko **1** – Elgoibar **1** (Erreg.)
 Anaitasuna **3** – Elgoibar **2** (Jub.)
 Elgoibar **6** – Bergara **0** (Kad. A.)
 Anaitasuna **6** – Elgoibar **1** (Kad. B.)
 Zumaia **6** – Elgoibar **6** (Inf.)
 Elgoibar **2** – Eibar **6** (Txiki)
 Arizmendi **1** – Elgoibar **1** (Nesk.)
 Elgoibar **2** – Lagun Onak **1** (Aleb.)

ESKUBALOIA

Grupo Eibar Elg. **26** – Ermua **26** (Jub nesk.)
 IMH Elg. **20** – Ermua **34** (Kad. nesk.)
 Alkorta Elg. **34** – Bergara **33** (Sen. mut.)
 Beristain Elg. **39** – Irungo gazteak **14** (Jub. mut.)
 Zarautz **38** – Lauko Elg. **11** (Kad. nesk.)
 Legazpi **17** – Pneumax Elg. **22** (Kad. mut.)
 Arrate **5** – Aterpe Elg. **22** (Inf. nesk.)
 Txarriduna Elg. **16** – Udarregi **24** (Inf. mut.)
 Aloña Mendi **11** – Ikus Elg. **19** (Inf. nesk.)
 Aloña Mendi **15** – Astigarraga Elg. **22** (Inf. nesk.)
 Amenabar **22** – Bankoa Elg. **20** (Inf. mut.)

ARETO FUTBOLA

Zarautz **1** – Concepto Createch **5**

ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Segura **14** – Lagunak **22** (2. mailako kad.)
 Bergara **22** – Lagunak **12** (1. mailako nag.)
 Lagunak **15** – Antiguoko **22** (2. mailako nag.)
 Hernani **22** – Lagunak **9** (3. mailako nag.)
 Pala
 Lagunak **25** – Usurbil **16**

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

10:30 Elgoibar – Ikasberri (Kad. B)
12:30 Elgoibar – Zumaia (Chorezko jub.)
16:30 Elgoibar – Eibartarrak (Pref.)
18:30 Elgoibar – Eibar (Nesk.)

Domeka, 29

12:00 Elgoibar – Ilintxa (Chorezko inf.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

19:00 Tecnifuelle Elg. – Kukullaga (Sen. nesk.)
17:30 Pneumax Elg. – Arrate (Kad. mut.)
10:00 Ikus Elg. – Aloña Mendi C (Inf. nesk.)
11:15 Aterpe Elg. – Zarautz (Inf. nesk.)
12:30 Astigarraga Elg. – Arrate (Inf. nesk.)

Domeka, 29

10:45 Bankoa Elg. – Zarautz (Inf. mut.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

16:00 Concepto Createch – Lakuntza

PILOTA (Ikastolan)

Barbakua, 27

22:00 Lagunak – Bergara (1. mailako nag.)
23:00 Lagunak – Mundarro (Pala)



EZKONTZAK 09

AZAROKO GEHIGARRI BEREZIA

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutza
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTITIEGLAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA. JATETXEA

Ezkontza zibila: tramiteak eta ospakizunak

Epaitegia da ezkontza zibilen lekua, han tramitatzen dituzte-eta Erregistro Zibilean aurkeztu beharreko agiriak. Azken batean, epaitegiak eman behar du ezkontza burutzeko agiria.

Ezkontza zibila egiteko zenbait tramite egin behar dira:

- ▶ Bikotekideen NAN-DNI agiriaren fotokopia (ezinezkoa baltz, pasaportearen edo bizileku-txartelaren kopia).
- ▶ Eguneratutako jaiotza-agiri literala. Jaiotza-agiriaren kopia literala da, norbera jaiotako Erregistro Zibilean ematen dutena.
- ▶ Nazionalitate-agiria.
- ▶ Ezkontzan parte hartuko duten lekuko bien NAN-DNI kopia.
- ▶ Dibortzietuek ezkongabe-agiria aurkeztu behar dute.
- ▶ Alargunek aurreko ezkontzaren agiria eta heriotza-agiria aurkeztu behar dute.
- ▶ Ezkongaietako bat beste estatu batean bizi bada, ezkongabe eta nazionalitate aitortpena lortu behar ditu, bizi den estatuko konsulatuen bidez.
- ▶ Beste nazionalitate bat duten ezkongaiak kode zibila onartu beharko dute.



Protokolo-zerbitzuaren bidez, ezkongaiak adieraziko diete non, zein egunetan eta zein orduan burutuko den ezkontza ospakizuna. Kontuan hartu lekukoek adinez nagusiak izan behar dutela.

Ezkontza gauzatzeko, nahikoa da Erregistro Zibilak adierazitako lekuan, egunean eta orduan agertzea ezkongai biak eta lekukoak. Bake-epaileak kode-zibileko artikulatuak irakurriko ditu. Ondoren, ezkongaiak galdetuko die ea elkarrekin ezkondu nahi duten. Erantzuna baiezkoa bada, senar-emazte izendatuko dituzte. Gero, epaileak, ezkonberriek eta lekukoek agiria sinatuko dute.



Imprenta Arrillaga

■ Ezkontza gonbidapenak ■ Bisita kartelak ■ Zorionak eta zorte on!

■ Hileta orogariak ■ Kartelak - etiketak ■ e.a.

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87 e-posta: arrillaga@euskalnet.net

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

KIRURI

JATETXEA

Loiola Hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tel.: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

DEBAPE

INPRIMATEGIA

komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.: 943 74 40 58
• Faxa: 943 74 41 78 • debape@debape.com • www.debape.com

Ospakizuna

Ezkontza ez da Erregistro Zibilean amaitzen, gero ospakizuna dator-eta. Zenbait modutan ospatu daiteke ezkontza: batzuek nahiago dute handikiro; beste batzuek, berriz, modu apa-lagoan.

Ospakizuna antolatzea ez da kontu zaila, baina den-bora behar du. Lehenik, garbi izan behar da gonbidatuak nor izango diren. Azken batean, talde txikia ala handia izango den jakin behar da.

Ezkontza zibiletan lunch erako menua egiteko ohitura gero eta handiagoa da. Kasu horretan, jaki hotzak eman dakizkieke gonbidatuei, esaterako, sandwichak, jaki gaziak eta etxean eginiko janaria. Edaria oso kontuan hartu beharra dago: gonbidatu bakoitzak botila bana edaten du normalean. Era honetako ezkontzak gertukoekin ospatzea komeni da, laguneren eta senideen arteko harremanak sendotzeko modurik onena delako.



Olaia
Laser depilazioa

Alquadepil

San Inazio, 4 behean
20870 Elgoibar
Telf: 943 742 725
www.cammergroup.es

DIODO LASERRA

%50 EMAKUMEETAN	%50 GIZONEZKOETAN
● Hanka osoa 275 €/sesioko	● Bizkarra 225 €/sesioko
● Hanka erdiak 145 €/sesioko	● Bularra + sabela 275 €/sesioko
● Hanka erdiak 160 €/sesioko	

**KALITASUTIK MARTXORA BITARTEN
HASITAKO TRATAMENDUETAN**

FOTO JAUJA

www.fotojauja.com

EIBAR

URKI 17 BEHEA

T.L.F. 943.202716
M. 688647344

EZKONTZA 2010

**TERRAZA HANDIA DANTZARAKO
ETA KOKTELETARAKO**

**2 suite jakuzziarekin
4 gela hidromasajearekin
Elbarrituentzat egokitutako gela**

Wi-Fia doan eraikuntza osoan

**250 lagunentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak**

**Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60€
Eguneko menua: 20€
Karta: 36€**



**Krabelin
HOTELA-JATETXEA**

Tel: 943 202 727 - Faxe: 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
20600 EIBAR (Gipuzkoa)


**SAN ANDRES BEZPERAKO MENUA
KRABELIN HOTELA**

- Arrautza hautsia onddoen gainean
- Galeper eta anana-entsalada
- Txangurro-lasagna zigala-zuku gainean
- Basa-ontxi karraska
- Azpizuna foie txirbilekin
- Txokolate eta almendren bavaroisea

40€ ogia, autobusa eta BEZ barne
Menuz kanpoko edariak sidez aurretik
erreserbata.

"NEGUKO DOMEKAK" MENUA:

Arrateko babarrunak, sakramentu, aza eta
guzti. Postrea eta ogia barne. 16 € + BEZ %7.
Edariak ez dira menuan sartzen.
Erreserbak 943 202 727 telefonoan



Emaztegaiarentzat manikura

Ezkontza guztietan eraztuna jartzeko momentua da garrantzitsuena. Horregatik, eskuak eta, batez ere, azazkalak ondo zainduta izatea komeni da, bestela une horrek xarma guztia galdu dezake-eta. Hori gertatu ez dadin, ezkondu aurretik manikura egitea da gomendagarriena.

Manikura ezkontzaren aurreko egunean egitea da gomendagarriena, ezkontza egunerako azazkalak ez daitezen hondatu. Horretarako dena ondo antolatzea komeni da, eta azken egunerako ez da besterik laga behar, izan ere, manikura eta pedikura denboraz eta lasaitasunez egin behar dira-eta; presarik gabe.



Azazkalak margotzeko unean, ezkontzeko kolore deigarriak ez dira erabili behar. Kolore argiak, portzelana tonuak eta beti dotore geratzen den manikura frantsesa gomendatzen dira. Azken hau izaten da egokiena. Azazkalei distira eman behar zaie, eta gogortzeko produktu bat. Ondoren, pastel kolorez edo tonu argiz margotu behar dira, eta kanpoaldeko zurtasuna indartzea ere komeni da. Ausartenek brillante txikiren bat ere jarri dezakete azazkalen batean, apaintzeko.

An advertisement for Photodepilazio. It features a close-up of a woman's face with dark hair. The text "AGURTZANE" is written across the top, and "c.b." is written in the bottom right. Below the image, it says "ileapaindegia" and "FOTODEPILAZIOA". At the bottom, it provides the address "Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar" and the phone number "Tel.: 943 741 864".

An advertisement for Hair's Ilepain GI. The top part of the ad has the text "HAIR'S ILEPAIN GI" in large letters, followed by "San Bartolome, 6 behea" and "Tel.: 943 53 12 79". Below this, there is a purple box with white text that reads "ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:" followed by a list of services and prices: "- Orraztu 8 €" and "- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €". To the right of the purple box is a stylized illustration of a woman's hair.



Manikuraren baruan, ez dira azazkalak bakarrik zaindu behar. Esku guztia prestatu behar da ezkontza egunerako. Esku lehorrak eta pitzatuak olioarekin edo kremekin leundu behar dira.

Manikura emaztegaiek egiten dute batez ere, baina senargaiak ere eskuak eta azazkalak zaintzea garrantzitsua da.



Soinekoaren koloreak ere eragina dauka azazkalen kolorean. Soinekoa zuria eta distiratsua bada, azazkalek ere tonu bera eduki behar dute. Aldiz, soinekoa xanpain edo beige kolorekoa bada, azazkalak arrosa argiz eta distirarik gabe margotu behar dira. Azazkalen formari dagokionean, biribila da dotorena eta azazkalak oso luze eramatea ere ez da gomendatzen. Hala ere, jende guztiak ez dauka azazkal luzeak. Azazkal motzak dituztenentzako, portzelanazko azazkalak jartzea irtenbide egokia da. Benetako azazkalaren gainetik jartzen dira, eta norberak aukeratzen du gustuko luzera. Oso emaitza onak lortzen dira, eta azazkalak benetakoak direla emango du.

Osasun eta Estetikaren Zaintza

- DIETETIKA
- OSTEOPATIA
- AKUPUNTURA
- ESTETIKA BERBITEJAK
- GORPUTZ TRATAMENDUA
- ETA LASER DEPILAZIOA

Zuzendaria: Nekes 1
Euzkoaldea
Tel: 943 743 460

Garbiñe
Estetika

Prestatu zaitez tratamendu berriekin:

- Tratamendu naturalak
- Aromaterapia
- Txokolaterapia
- Bilidukina fruitu gorrien esentziak

GABONETAKO OPARIA ZAIN DAUKAZU!

P.M. Uruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

Ezkontzetarako apainketak:

- Erramua
- Eliza eta jatetxeko apainketa
- Autoa

ESKA EZAZU LASAI AURREKONTUA


943 740 189 / 688 631 307
Merkatu plazan!
www.pagoaloradenda.com


pagoa
JARDULERA & JARDUNALDIA

Jasone
Zabitu duñuak

- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak.
- Gabon zorion-gutunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala.

Zuzendaritza: E. Urrutia - 943 74 22 844 - Zuzendaritza: E. Urrutia - 943 74 22 844 - Zuzendaritza: E. Urrutia - 943 74 22 844



ARNOPE  **NAVA**
I N P R I M A T E G I A K

ARNOPE
 Jose M^o Aitzibar, 6 - II. Blokea
 Telf. eta Faxa: 943 603 194
 e-mail: arnope@terra.es - ☒ 56
 20830 MÜTRIKU (Gipuzkoa)

NAVA
 Santa Ana, 44 - ☒ 208
 Telf. eta Faxa: 943 744 451
 e-mail: nava@euskalnet.net
 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GADIFOT ARGAZKILARITZA
Iñaki Galparsoro



Komentukoa, 2/3
 Telf: 943 170 571
 Ermua (Bizkaia)

www.gadifot.es

Ezkontzak



ARAMBURU

BITXIDENDA

Opariak erosterakoan,
 kontutan izan 20 €-ko gestuagatik
 txartel bat emango dizugula,
 Errege bezperan
 ogingo den zozketarako!!!

**Aurten bitxi-dendan gastatzeko
 500 €-ko 2 bale zozketatuko ditugu!!**

**AURTEN
 ZU IZAN
 ZAITEZKE!!!**



San Frantzisko, 26 - Tel./faxes: 943 74 25 35 - Elgoibar

**JOSE
ANTONIO**

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30
Tel: 943 74 14 92

DONNA

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel. 943 74 43 88

Amagoia

ileapaindegia

Tel: 943 03 38 35
Mendarozabal, 4 behea
MENDARO



Tximak

**ILEAPAINDEGIA
solariuma**

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel: 617 988 130

ELENA

ileapaindegia
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1
Tel: 943 74 11 89

AGURTZAN


ileapaindegia

LASER DEPILAZIOA!
Santa Ana, 18 - Tel. 943 74 18 64

Maria Urizar

ileapaindegia
Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89



IBC sistema apustu segurua

Estetika Alire zentruko arduradunak dira Alicia Madrego eta Leire Pagei. Ezkontza baten aurrean hartu beharreko pausuez hitz egin dute BARRENEkin.

► **Zein tratamendu gomendatzen dituzue Alire Estetikan horrelako egun garrantzitsu baterako?**

Egia esan, aukerak zabalak eta erabatekoak dira, egun berezi horretan azal ikusgarri bat izateko: gorputz-erreduktorea eta hidratatzailea lortzeko tratamenduetatik, orain puntakoak diren aurpegi tratamenduetara arte, IBC sistema esklusiboaren bitartez.

► **Zer da IBC sistema?**

Oinarrian, azalaren diagnostiko bat da, metodologia esklusibo batekin. Emaitza apartak ematen dizkigu.

► **Zertan datza sistema?**

Aurpegi, lepo eta paparreko estetika alterazio guztiak igartzen ditu. Horien benetako arrazoa eta arazoaren zabalkunde zehatza identifikatzen ditu.

► **Zein da jarraitu beharreko protokoloa?**

Bezeroarekin hitzordua zehazten dugu, eta diagnostikoa egiten dugu IBC sistemarekin. Ondoren, emaitzak eskuan ditugunean, bezeroarekin batera azalarentzako emaitzarik onenak lortzeko sesio kopurua eta lima tipoa aukeratzen ditugu. IBC sistema apustu segurua da!!





estetikaalire

Ornatzea: Astrolanetik ostirala: 09:00-12:00 / 15:00-20:00 - Asturke: 09:00-19:00
Larrebata: 10:00-13:00 - Upea zaharra, I. lehen - Tel. 943 531 636 - Elgoibar



DOAN: IBC DIAGNOSTIKOA
+
AURPEGI PEELING-A
+
MASAJEA

GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN
ETA FOTODEPILAZIOAN ESPEZIALIZATUAK GAUDE.
ZATOZ KONTSULTA EGITERA.

"CULLA" (Estresaren aurkako tratamendua) + Spa manikura + Spa pedikura
%10eko deskontuarekin..... **83,70 €**

Gorputzeko peeling-a + hidratazio tratamendua + manikura frantsesa
%10eko deskontuarekin..... **88,20 €**



TRATAMENDUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laserra, elektrikoa, argizorizkoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hantetako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoak



Joseba
JATETXEA
FLOREAGA Jauregia
Aizkibel, 10 · AZKOITIA
Tel. 943 85 34 12
e-posta: josebajatetxea@hotmail.com
www.josebajatetxea.com

*Euskal arkitekturako eraikin
nagusienetakoan,
ezkontzak berezia
izan behar duelako*



*XVI. mendeko
jauregi gotikoan
paregabeko paisaia
batean,
gaur egungo joerei
erreparatzen dien
kalitatezko
euskal sukaldaritza
klasikoaz gozatzeko
aukera ematen dute*



**250 lagunentzako jantokia,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako bata,
eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.
Luncha egiteko terraza aproposa.**



JATETXEA

Loiolako Inazio

Hiribidea, 47

20730 AZPEITIA

Tel: 943 15 16 16

Faxa: 943 15 16 18

www.hotelloiola.com

E-posta: loiola@hotelloiola.com



Iñigo Lazkano mendarorak irabazi zuen zapatuan Alkortako Igoera

Hogeita lau antxitxikarik amaitu zuten zapatuan Alkortako Igoeran, tartean zortzi egun lauretik Karakateko Igoera jokatuak asko. Ikusmin handia zegoen, besteak beste, Joseba Plaza iazko txapeldunak irabaztera joango zela iragarri zuelako bere blogean. Iñigo Lazkanok, hala ere, aurrea hartu eta hamaika segundoko aldea kendu zion –Plazarena da denborarik onena, 20:43koa–. Joseba Altuna azpeitiarra sailkatu zen hirugarren. Ione Urain mendaroraren *Zurrunbiloak* eskultura bana jaso zuten lehenengo hirurek, eta irabazleak txapela ere bai. www.elgoiBARREN.net-en dago bideoa.



Eduardo Uribe eta Sugar Etxaniz, azkeneko metroetan.



Jurdan Ezenarro, eta atzean, Aitzol eta Beñat Urain anaiak.



Lasterkariak Udaletxeko plazan, irten aurretik.



Javi Fernandezek 11. egin zuen.



Iñigo Lazkano, ahalegin betean.



Joseba Plaza, Iñigo Lazkano eta Joseba Altuna.

Elkartasun eguna egingo dute Mendaron bihar

Euskal presoen aldeko elkartasun eguna egingo dute bihar Mendaron. 14:00etan herri-bazkaria egingo da Goñati frontoian, eta ondoren, bazkalostean, ekitaldi berezi bat egingo da, bertsolariekin. Arratsaldean, berriz, bertso-poteoa egingo dute herrian zehar.

'Egunkaria'-ren aldeko argazkia bihar zortzi

Abenduaren 14an hasiko dira *Egunkaria*-ko bost auzipetu epaitzen, eta Kontzesio Egunean *Egunkaria*-ren aldeko materiala jarriko dute salgai plazan. Aitor Etxeberria margolariak, bestalde, koadro bat emango du *Egunkaria*-ren alde, eta obra hori errifa bidez zozketatuko dute. Elkartasun erretratu 13:20 aldera egingo da plazan.

SAILKAPENA

1. Iñigo Lazkano	21:07
2. Joseba Plaza	21:18
3. Joseba Altuna	22:35
4. Oscar Oncala	22:54
5. Ruben Arrizabalaga	23:23
6. Igor Urionabarrenetxea	23:42
7. Jokin Urresti	24:12
8. Igor Rey	24:50
9. Eduardo Uribe	25:41
10. Sugar Etxaniz	25:46
11. Javi Fernandez	26:32
12. Roberto Osoro	26:52
13. Aitor Ibabe	27:26
14. Ibon Villanueva	28:00
15. Illart Urain	28:56
16. Adur Juaristi	28:57
17. Jurdan Ezenarro	29:42
18. Aitzol Urain	29:54
19. Beñat Urain	29:54
20. Mikel Etxabe	30:27
21. Gonzalo Saez	31:21
22. Ruben Rios	31:25
23. Xabi Aulestiarte	31:39
24. Eneko Salegi	35:48

JULIA AGIRRE, MENDAROKO BUTTON

Julia Agirre Monrealek atzo astebete egin zituen 12 urte, baina ondo baino hobeto ezagutzen du dagoeneko automobilen mundua. 10 urte eska-sekin hasi zen kart-ak gidatzen Olaberriako zirkuitoan (Gipuzkoa), eta ordutik dozenaka lasterketa jokatu ditu. Alebinetan hasi zen, eta orain kadete mailan lehiatzen da. Challenge del Norte txapelketan dihardu, eta emaitzei erreparatuz gero, ezin esan gaizki ari denik. Behin baino gehiagotan jo du goia sailkapentan, eta kartingaren inguruko web guneetan etorkizun handiko pilotutzat jotzen dute.

Ainara Argoitia



Aitarengandik jaso zuen Julia Agirrek kart-etarako zaletasuna, eta zapatu arratsaldeetan Olaberriko zirkuitura egindako osteretan sartu zitzaion harra barruraino. Bertan egin zituen lehenengo urratsak. Errentan hartutako kart-ekin hasi zen, aitarekin, eta han ezagutu zituen bere adineko beste gidari batzuk. “Euren kart-ekin ibiltzen ziren haiek, eta aitak eta biok kart bat erostea erabaki genuen”, azaldu digu. Orain bi urteko udazkenean izan zen hori. 65 zentimetro kubikoko kart-a erosi zuten, “zahar xamarra, baina polita. Probatzen hasteko egokia”, zehaztu digu Edu Agirrek, Juliaren aitak. 80 kilometro or-

“Zirkuituetan hobeto moldatzen naizen arren, nahiago ditut kale barruko lasterketak”

duko abiadura hartzen zuen ibilgailu hark, eta laster gelditu zitzaion txiki Juliari. Urtebete egin aurretik hura baztertu, eta berria erosi zuten, gaur egun erabiltzen duena, hain justu ere.

Hainbat txapelketa jokatu ditu dagoeneko, eta Challenge del Norte ari da orain burubelarri, Olaberria eta Kantabria artean atzera-aurrera. Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban homologatutako zirkuito bakarra Olaberrikoa da, eta hori dela eta, sarri kanpora jo behar izaten du Juliak. Olaberriko zirkuitua libre dagoenean bertan entrenatzen da, baina ezin denean, Burgosera eta Torrelavegara jotzen da Aritz Garcia mekanikoarekin eta haren talde bereko –AGA Racing– beste pilotu batzuekin. Asteburuetan izaten dira entrenamenduak, eta domeka gauean etxera itzultakoan, eskolako lanak izaten ditu egiteko. Elgoibarren hasi da aurten, Institutuan, eta

gero eta zailagoa egiten zaio kart-tetarako zaletasuna eta ikasketak uztartzea, baina saiatzeak merezi duela dio. Gora begiratzen du Juliak, eta gurasoek lagundu ahal diezaioketen bitartean, jarraitu egingo duela dio, zalantza handirik egin gabe.

“Afizio garestia da oso kart-ena”. Talde batean aritzeko dirua jarri beharra dago, mekanikoa bera eta kotxearen mantenimendua ordaintzeko. Babeslerik ere apenas dago kart-etan, eta are gutxiago Juliaren mailan. “Automobilismoak sekulako arrakasta du. Herrietako probetarako ere erraz lortzen dira babesleak, eta afizio handia dago, gainera. Kart-en mundua, baina, baztertuta dago, eta zaila da bidea egitea. Fernando Alonso bera ere kart-etan hasi zela esaten dute batzuek halakoetan, baina inoiz ez da esaten zelan hasi zen: aita bizitza osorako hipotekatuta”, esan du Juliaren aitak.

Entrenatu eta entrenatu ari da Julia. Piloto ona izateko beste formularik ez dagoela dio, heldutasun handiz. Gogoan dauka Oلابerrian jokatu zuen lehenengo karrerako danbategoa. Lasterketa bezperan, entrenamenduetan, oso gustura aritu zen, gainerakoak atzetik zituela. Ilusio handiarekin joan zen, hala, lasterketa jokatzera, baina han ezusteko handia izan zuen. Bezperan atzetik izan zituenak aurea hartu zioten, eta “kolpe handia” izan zela aitortu du. Esperientzia hark, baina, ikasteko balio izan zion. Orduetik, eskarmentu handia hartu du, eta gidatzeko modua ere aldatu duela gaineratu du: “Hasierako probetan oso seguru aritzen nintzen, eta horrek oso erregularra egiten ninduen. Orain, hala ere, ausartago gidatzen dut eta gehiago arriskatzeko dut”. Bat dator bere aita ere: “Irabazteko ausarta izan beharra dago, baina arriskatzeko horrek ustekabekoak ere ekartzen ditu. Istripuak, tronpoak... ikusten gaudenontzako, askoz da gogorragoa orain”.

Arriskua, abiadura eta estuasunak

Arriskua gustuko du, baina, Juliak. Estuasun batzuk izan dituela onartu du, baina horrek beldurtu baino gehiago indarra ematen diola nabarmendu du. Amak eta amamak, baina, sarri eskatu diote lagatzeko, hala ere, berak ez dauka jaramonik egiteko as-

morik. Maite du abiadura. Hala, zirkuitu homologatuak baino nahiago ditu hiri barruko zirkuitoak, kalean jokatzeko direnak. Orain arte bi jokatu ditu, eta oso oroitzapen onak gordetzen ditu, bereziki Zumarragan jokatu-tako lehenengokoarena. “Zirkuituetan berez hobeto moldatzen naizen arren, nahiago ditut kale barrukoak. Lasterketa egunean bertan probatzen duzu lehenengo aldiz, eta alde horretatik zailagoak dira. Sustu gehiago ere izaten dira, gainera. Errepide bustiak, errotondak, alturan dauden zebra-bideak... gustatzen zaizkit”. Hala ere, ez dago aukera handirik kale barruko zirkuituetan. Iaz Nafarroan egin ziren batzuk, baina aurten ez da bakar bat egin. Pilotuentzat horren erakargarri den arrisku horrek berak atzera botatzen ditu antolatzaileetako asko. Aseguru etxeek ez dute lar laguntzen, eta babes hori gabe antolatzaileek ezin dute aurrera egin.

“Lagunek ezizenak jartzen dizkirate, eta aurten Jenson Button esaten didate”

Asteburuan erresistentziako lasterketa bat jokatzeko zen Villarcayon (Burgos), baina azkenean Quijasean (Kantrabrian) jokatu den beste proba baten alde egin du. Challenge del Norte txapelketako aurtengo azkeneko lasterketaren alde, hain justu ere. Hori xe du orain begiz jota, egutegian gertuen duelako. Egutegia bera ez dela oso segurua izaten aitortu du Juliak, horren harira. “Eguna jarri, eta gero atzeratu egiten dute sari”. Bada, hala ere, ilusio berezia egiten dion egitasmo bat. Noiz izango den ez dakit, baina bere taldea Italiara bidai bat antolatu nahian ari da. Tibicar kart etxea bisitatu eta ondoren, han bertan kartak probatu nahiko lituzteke. Hori ondo irtengo balitz, aukera legoke etorkizunean Italian lasterketaren batean parte hartzeko ere, baina hori oraingoz asmo bat baino ez da.



Bitartean, hemen saiatu beharko du Juliak. Jarraitzaile ugari dauzka, Mendaron bertan zein kanpoan, eta horrek bultzada handia ematen diola dio: “Lagunak etortzen dira pankartekin-eta, ni animatzera. Ezizenak ere jartzen didate, eta aurten Button esaten didate”. Jenson Button Erresuma Batukoa da, eta berak irabazi du aurten 1 Formulako Munduko Txapelketa. Era berean, eta kartetarako zaletasun hau tarteko, Internet bidez ere lagun ugari egin ditu Juliak azken urteotan. Kart-ak, automobilismoak, motocrossak eta 1 formulak batzen ditu guztiak; motorrak azken batean. Juliak orain asko ez arte *Tuentian* izan duen leloa da horren adibide garbia: *Futbol gutxiago, eta lasterketa gehiago*. “Barru-barruraino sartuta dauka pozoia, eta ahal dugun urrutien iritsi nahiko genuke, beti ere gure bitartekoak zeintzuk diren ahaztu gabe”, nabarmendu du aitak. Denborak esango du, baina bide onetik doa.

IBAN URIZAR

Andrakan proiektuaren sustatzailea

Iban Urizar eta Patxi Zabaleta Sinuoseko kideekin bildu da BARREN, Sotoko Hotsak jaialdiaren inguruan jarduteko. On Benito eta Mursegoren kontzertuen ostean, Andrakanen txanda da gaur. Iban Urizarren ekimenez sortutako proiektua da, eta bertan, Patxi eta Iban beraz gain, herriko punta-puntako musikariek jotzen dute.

“Sinuosek antolatutako saioak entzuteko zailak direla uste duen jendeak sorpresa hartuko du gaur”



Zein helbururekin antolatzen duzue Sotoko Hotsak jaialdia?

Musika esperimentalari edo propaganda handirik egiten ez zaion musikari tarte bat egiteko asmoarekin. Urte batzuk bageneramatzen Sinuosekin aratusteetan kontzertuak antolatzen, eta Kultur Etxeko sotoa ezagutu genuenean, zerbait egitea erabaki genuen. Bizitasun bat eman nahi diogu herriari, eta erakutsi badagoela beste zerbait Oreja de Van Gogh, David Bisbal eta halakoez aparte. Duela bi urtetik hona, Udalak diru laguntzatxo bat ematen digu, eta musika ekipoa ere jartzen du. Horrekin gu saiatzen gara Elgoibari beste musika eskaintza bat ematen, eta emaitzarekin gu geu gustura gaude, musikazaleen artean harremanak egiteko bidea ere ematen duelako.

Zer nolako harrera izan duzue urteotan?

Oso ona. Beste saio batzuekin alderatuz, gurera ez da horrenbeste jende etortzen, baina etortzen direnak gustura irtetea da kontua, eta uste dugu lortzen dugula, entzule asko urterokoak direlako.

Aurtengo kartelarekin zer eskaini nahi izan duzue?

Andrakan proiektua geneukan esku-artean, eta pop-folk kutsukoa denez, horren bueltako zerbait egitea erabaki genuen. Esperimentaletik ere badu, hala ere, aurtengo jaialdiak. Maite Arroitauregi eibartarrak [atzo] eskaini zuen Mursego bakarkako proiektua, adibidez, ez da inondik inora proiektu komertziala. Ukelelea, perkusioa eta ahotsa nahasten ditu, eta ez da oso komertziala esaten dena. Iaz ere etorri zen Maite, baina lagun batekin.

Elgoibartar musikari onenak batzen ditu Andrakanek, herriko dream-teama. Zelan sortu duzue egitasmo hori?

Dream team-a da, bai; luxuzko taldea. Orain urtebete inguru kanta batzuk konposatzen hasi nintzen, eta hamabi bat osatu nituen. Pena ematen zidan kanta horiek hor gelditzea, eta zuzenean emateko jende

de bila hasi nintzen. Bat garbi neukan zein izan behar zen, urteetan nire ezkerreko besoa izan dena: Patxi Zabaleta. Patxiri gustatu zitzaion, eta gero Ion Gurrutxagarengana eta besteengana jo nuen. Arima Beltzako abeslaria izandakoa eta perkusio irakaslea da Ion. Punta-puntako musikaria. Carlos Cebrian mendarorarengana jo nuen gero. Lili Moonen ibilitakoa da, aspaldiko laguna; beste fenomeno bat. Baxujotzaile bat ere behar nuen, eta Andoni Mujikarengana jo nuen gero. Andoni tronpista profesionala da. Bilboko bandarekin jotzen du, eta azkeneko bi urtean baxuarekin ere badabil. Kantak prestatuta neuzkan nik, eta arreglo batzuk ere eginda neuzkan. Denok batu eta entsaiatzen hasi ginenean, baina, sekulako sorpresa hartu nuen.

Talde moduan aritzeko jaiotako Andrakan?

Hasierako kanta haiek zuzenean emateko sortu nuen proiektu hau, baina talde egonkor bat osatzea gustatuko litzaidake. Kantak nireak dira, eta ardura bat sentitzen dut, baina urtebetean talde forma hartu du honek. Mila kontu dauzkagu denok, eta ikusi egin beharko da noraino iristen garen, baina urtariletik aurrera kontzertuak ematen hasiko gara. Hamabost kantako *set-list* bat daukagu zuzenerako, eta nik uste hasteko nahikoa dela.

Zelan dago Elgoibarko musika panorama?

Garai batean Fundizioaren bueltan talde asko sortu ziren, baina gaur egun ez dago ezer. Musika jotzeko lokalak falta dira. Hamar bat lagun gaude herrian musikari oso lotuta, eta gu dena emanda ari gara.

Zer jasoko du Andrakan entzutera doanak?

Ondo sentitzeko abestiak dira. Askok pentsa dezakete Sinuosek antolatzen dituen kontzertuak entzuteko zailak direla, eta akaso batzuk badira, baina horiek ere sorpresa hartuko dute gaur Andrakanekin. Pop-folka da, eta entzuteko atsegina.

Elkarte gastronomikoez okela gisatua prestatuko dute biharko azokan

Sanlo eskubaloi taldekoek salduko dituzte okela razioak

Egoibarko elkarte gastronomikoez okela gisatua prestatuko dute biharko, azaroko azken zapatuko ferian. Elkarteen arteko topaketa gastronomikoa izango da, hortaz, hilabete honetako feriarako berezitasuna. Udalak, Zubi Ondo eta Gure Bide elkarteekin batera antolatutako ekimena izango da hau, eta hamar elkarte hartuko dute parte: Gure Bide, Zubi Ondo, Bihardana, Kalamua, Ego Toki, Karakate, Galiza etxea, Sallobente, Baltasar eta Herri Gain.

Topaketa Gastronomikoa, Nafarroa Plazan egingo da eta elkarteak 9:00etan hasiko dira lanean. Hamar elkarteek prestatutako okela gisatua dastatu ahal izango dute 12:00etatik aurrera herritarrek. Sanlo eskubaloi taldeko kideak arduratuko dira gisatuarekin eginiko pintxoak saltzeaz. Horrez gain, Gabi jatetxeak, Txariduna hote-



lak eta Lojantzi tabernak baserriko produktuekin eginiko pintxoak eskainiko dituzte.

Azokak bestalde, hileroko egitaraua izango du. Baserrietako produktuen salmenta-postuak jarriko dituzte Nafarroa Plazan, eta Plaza Txikian baserriko tresneria eta abereen salerosketa egingo dute. 12:00etatik aurrera, kale kantarien saioa izango da.

Magosto eta Gaztañerre egunak ospatu zituzten joan zen asteburuan



Ezkerrean Gaztañerre eguna Altzolan, eta eskuman, Magosto eguneko irudia.

Galiza Etxeak urtero antolatzen duen Magosto egunak eta Altzolako Zubibai Elkar-teak berreskuratu duen Gaztainerre jaiak bat egin zuten joan zen asteburuan. Galiza kultur etxeko bazkideek, orain dela 20 urte hasitako ohiturari jarraituz, gaztainak eta Ribei-ro ardoa banatu zituzten zapatuan, Nafarroa Plazan. 300 kilo gaztaina eta 225 litro ardo banatu zituzten guztira. Domekan, bestalde, aspaldiko ohitura berreskuratu zuen Zubibai elkarteak, Gaztañerre jai ospatu zuten-eta. Gaztainak antzinako erara, danbolinean erreta, dastatzeko aukera izan zuten Altzolara gerturatu zirenek. Ekitaldia birritan atzera-tu behar izan dute, baina antolatzaileek esan dutenez, dena ondo irten zen azkenean.



Santa Zezilia omendu zuten musikariek asteburuan

Musikariek Santa Zezilia eguna ospatu zuten joan zen asteburuan, eta hainbat ekitaldi izan ziren. Barixakuan hasi ziren ekitaldiak Sotoko Hotsak jaialdiarekin. Zapatuan Musika Eskolakoek dantza eta musika jaialdia egin zuten Herriko Antzokian, eta Parrokiako koroak ere kontzertua eskaini zuen mezatan. Domekan, Udal Musika bandaren kalejira eta kontzertua izan ziren, eta astelehenean Herri Eskolako umeek euskal abesti ezagunak abestu zizkieten San Lazaro egoitzako kideei. Musika eskaintza oparatu izan zen, beraz, asteburuan.



Uxue Alberdik domekan jokatu du bertsolari txapelketako finalaurrekoa

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoen bigarren itzulia jokatu du domekan, hilaren 29an, Uxue Alberdik Donostiako belodromoan. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Sarriegi, Arkaitz Estiballes eta Iñaki Gurrutxaga izango ditu aurrez aurre elgoibartarrak.

Saltsa dantza ikastaroa hasiko da abenduaren 5ean

Kirol Patronatuak antolatuta, saltsa dantza ikastaroa hasiko da abenduaren 5ean. Alina Sanchez kubatarra izango da irakaslea. Ikastaroa 10:30ean hasiko da, eta bi orduko iraupena izango du. Interesatuek Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena (943 744 415).

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea garbiketa lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **663 786 976**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest edo pertsona nagusiak zaintzeko prest, psikologia ezagutzarekin. ☎ **685 761 979**
- Emakumea lan bila, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. ☎ **686 578 228**
- Emakumeak lana egin nahi du, zaharrak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketarako egiten. ☎ **685 761 979**
- Gizona lanerako prest, igeltsero, elektrizista, pintore edo beste edozer lanerarako prest. ☎ **606 612 834**
- Neska etxeko lanak eta garbiketarako egiteko prest. ☎ **654 837 227**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **636 517 025**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **626 329 979**
- Neska gaztea ile-apaintzaile lanerarako prest. Tituladuna eta esperientziaduna. ☎ **650 280 670**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Externa edo ordulka. ☎ **646 235 195**
- Emakumea interna edo ordulka lan egiteko prest. ☎ **662 247 584**

- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **697 702 158**
- Emakumea garbiketa lanak eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko prest. ☎ **686 420 642**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Pertsona euskalduna garbiketarako egiteko prest. ☎ **687 114 707**

ESKAITZA

- Irakaslea behar da Elgoibarko akademia baterako, hizkuntzetan eta eskola lanetan laguntzeko. centerbart@gmail.com

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- 100 metro koadroko lokala alokatzen da. Autokarabana bat aparkatzeko egokia izan daiteke. ☎ **605 772 880**
- Errosario kalean apartamentua alokatzen da. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Altzari batzuekin. ☎ **653 863 482**
- Mendaron, Azpilgoetan etxebizitza salgai edo alokairuan. ☎ **685 727 494**

- Pisia osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **610 458 552**
- San Frantzisko etxe polit bat alokatzen da, erosteko aukerarekin. Sukaldea, sala eta logela bat. Garbara. Atzariak berriak ditu. Arratsaldean deitu. ☎ **660 042 159**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garajea alokatzen da San Roke 5ean. Aterpe tabernaren azpian. ☎ **943 741 837**
- Garai bateko Geminis eraikuntzan garajea alokatzen da. ☎ **639 716 137**
- Garajeak saltzen dira Pedro Muguruza etorbideko 25. zenbakian. ☎ **625 708 042**
- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ **628 521 579**

BESTELAKOAK

- Gabonetarako opari ezin hobea. Play Station 3. 40 GB. Bi joko eta bi mando. 200 euro. Ondo zaindua, ia erabili gabea. ☎ **659 546 662**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitza/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro



ESKERTZA

PAULE KONDE ISASI-ISASMENDI

2009ko azaroaren 21ean hil zen.

...eseriko naiz han nonbait eguzki epelari bizitzaren nekea aitortuz eta lokartuko naiz agian betirako azken unean bakean neronekin ororekin bakean.

(X. Lete: Egunsentiaren esku izoztuak)

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

BARREN ELGOIBARTIK KANPO JASOTZEN DUTENETZAKO OHARRA

2010eko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira. (Elgoibarko Izarrako bazkideek %20ko deskontua izango dute)



▶ Euskal Herria eta Espainia: 20 euro (Bazkideek 16 euro)

▶ Europa: 30 euro (Bazkideek 24 euro)

▶ Europatik kanpo: 40 euro (Bazkideek 32 euro)


Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan: 943 744 112 (Ainhoa) edo barren@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak, **Nerea**, astelehenean urtebete egin zenuelako. Muxu bat familiakoen partez.




• Zorionak, **aittital** Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Jakes eta Joanen partez.



• Zorionak, **Unai**, gurasoen eta baita, Garazi eta Elur lehengusuen partez ere. Muxu bat!



• Zorionak, **printzesa**, gaur 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Agurtzanel** Ondo pasa zure eguna! Asko maite zaituen lagun baten partez. Ea kafea hartzeko tarte bat duzun!



• Zorionak, **Ane**, azaroaren 15ean 9 urte egin zenuelako. Muxu handi bat gurasoen eta bereziki, Noraren partez.




• Zorionak, **potxolo**, zure 1. urtebetetzean. Familiakoan, eta bereziki, Julen eta Maria lehengusuen partez.



• Zorionak, **Hodei**, hilaren 29an 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta bereziki, Anerren eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Nagore**, abenduaren 1ean 4 urte egingo dituzulako. Bereziki, Unai eta Juneren partez. Muxu handi bat!



• Zorionak, **pirata!** Ea zortea duzun eta altxorra laster aurkitzen duzun.



• Mila kilo zorion, **Nerea**, gaur zortzi urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



• Gure 4 urteko **poxpolinari**, mezu txiki bat: Maite zaitugu bihotza Familia osoaren partez.

OSPAKIZUNAK



Zorionak, **Sebas!** Elgoibarko ezker abertzalearen partez besarkada handi bat. Mikel, Juan Mari, Arnaldo, Sebas maite zaituztegu! Eutsi gogor!

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguzten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Egunkaria libre!

munduan libre
bizi ahal izateko
Egunkaria
libre munduan
bizi ahal izateko

Azaroaren 28an, zapatuan eguerdiko 12:00etan Foruen plazan

Elgoibartarron ELKARTASUNA erakusteko
ERRETRATUA atera behar dugu

Zabaldu mezua zure inguruan!

Egun horretan, Egunkariaren aldeko KAMISETAK eta BONOAK salduko dira plazan

OKINDEGIA

29 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 27 Fernandez
- 28 Yudego
- 29 Yudego
- 30 Zabaleta
- 1 Etxeberria (Errosario)
- 2 Ibañez
- 3 Garitaonaindia
- 4 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



27 barixakua

Bideo foruma

22:00 'Las chicas de la lencería'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika

22:30 Andrakan taldearen kontzertua

Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan, Andrakan musika taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan.

28 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Baserriko postuetako produktuak erosteko aukera izango da Nafarroa Plazan, eta ganadu feria egingo dute Plaza Txikian. Horrez gain, elkarte gastronomikoez gisatua egingo dute, eta 12:00etatik aurrera dastatu ahal izango da.

Elkartasun eguna

14:00 Herri bazkaria

Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, elkartasun eguna izango da Mendaron. Bertsolariak eta herri bazkaria izango dira.

Elkartasun argazkia

12:00 'Egunkaria'-ren aldeko argazkia

Egunkaria-ren aldeko elkartasun argazkia aterako dute bihar, Plaza Handian. 11:00etatik aurrera, Egunkaria-ren aldeko materiala jarriko dute salgai, eta bertsolariak ere izango dira.

29 domeka

Musika

12:30 Musikeneren kontzertua

Musikeneren perkusio bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

Txotxongiloak

16:30 'A la busca del sonido encantado'

Dream theatre Israel taldeak txotxongilo emanaldia eskainiko du. Herriko Antzokian.

1 martitzena

Informazio mahaiak

9:30 Hiesari buruzko informazio mahaiak

Hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta, Errotatxok informazio mahaiak jarriko ditu kalean.

Hitzalida

19:00 Hiesari buruzko hitzaldia

Gurutze Gorriak antolatuta, Hiesari buruzko hitzaldia eskainiko du Ruth Acostak, Gipuzkoako Gurutze Gorriko teknikariak. Hitzaldia gazteleraz izango da. Kultur Etxean.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

**ABENDUAREN 12AN,
FAMILIAN EGITEKO
IRTEERA BASONDOKO
FAUNA BABESLEKURA ETA
SANTIMAMIÑEKO KOBAZULORA**

**BAZKIDEAK 5 euro
BAZKIDE EZ DIRENAK 10 euro**

**IZEN-EMATEKO EPEA ZABALIK
INFORMAZIO GEHIAGO
LUDOTEKAN
ANIMATU ZAITEZTE**



GAZTELEKUKO EKINTZAK

**GABONAK
IRISTEAR DAUDE!**

**GAZTELEKUKO LAGUN
EZKUTUAN PARTE
HARTU NAHI DUZU?**

**ETORRI ETA SARTU ZURE
IZENA GURE KUTXAN!**

«La cruda realidad»

9, barixakua: 22:15
10, zapatua: 19:00/22:15
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuz.: Robert Luketic. Akt.: Gerard Butler, Katherine Heigl. Iraupena: 97 min.
Katherine Heigl telebista ekoizle bat da. Maitasuna aurkitzeko zailtasu-

nak ditu, eta hitzorduak lortzen lagunduko dio bere ekoiztetzeko aurkezleak. Kontua da aurkezlearen trikimailuek ezusteko ondorioak izango dituztela.



Gure gomendioa

Egunkariaren aldeko elkartasun argazkia

Azaroak 28, zapatua, Plaza Handian

Egunkaria-ren sumario nagusiko bost auzipetuen kontrako epaiketaren atarian, azaroaren 28an elgoibartarron elkartasun erretratu aterako dute Plaza Handian, 12:00etan. Antolatzaileek epaiketa horren kontra dauden herritarrei egin diete hitz-ordura azaltzeko deia. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean egin zen moduan, orain ere elgoibartarron elkartasuna eta babesa azaltzea da helburua. Erretratuaren aurretik eta ondoren, *Egunkaria*-ren aldeko bonoak eta kamisetak salduko dituzte. Salmentetik ateratzen den dirua epaiketako gastuei aurre egiteko izango da. Epaiketa abenduaren 14an hasiko da.

Egunkaria
libre!



Zerikasi

IKASTAROAK

Giza irudiaren marrazketa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2009-12-01
Non: Eibarren
Izena emateko: 622 053 933

Serigrafia

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Kantsultatu
Hasiera data: 2009-12-09
Non: Deban
Izenemate bukaera: Kantsultatu (943 191 804)

Galdaragintza

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-01-11
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 748 019 (Susana Mancisidor)

Egur lanketa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Kantsultatu
Hasiera data: 2009-12-09
Non: Deban
Izena emateko: Kantsultatu (943 191 804)

Soldadura ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-01-13
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Kantsultatu (Susana Mancisidor)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



«Dejame entrar» (Ongarri)

3. eguena: 21:30

Suedia, 2008. Zuz.: Tomas Alfredson. Akt.: Kare Hedebrant, Lina Leandersson, Per Ragnar. Iraupena: 114 min.

Oskar 12 urteko gazteari etengabe

jazartzen zaizkio beste ikaskideak. Eli iristen denean, haren lagun egingo da. Baina neska misteriosua da Eli; hura iritsi, eta hainbat desagerpen eta hilketa gertatuko dira.

Erretratu zaharra



1953

Aste honetako erretratu zaharra Maite Vallejok ekarri du BARREnera. 1953. urtean Accion Catolica taldeak eginiko kontzentrazioan ateratako argazkia da. Eibarko Untzaga Plazan bildu ziren. Gogoratu ditzagun neska gazte horiek:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Arantza Uriguen, Maria Luisa Urrutia, Bellen Barrutia (makurtuta), Maite Vallejo, Arantza Iriondo eta Esther Barrutia (†).

Behean, ezkerretik eskumara: Mari Paz Gabilondo, Garbiñe Uriguen, Consuelo Barrutia (†) eta Maritxu Urain.

Gure berbak

Hiztegixa: adverbixo batzuk (1)

Landare eta animalixen izen batzuk batu eta gero, gatozen Elgoibarren erabiltzen diran adverbixo batzuekin. Hona lehenbizikiak.

- ♦ **AGURO:** Azkar, bizkor. **Azkar** eta **Bizkor (Bixkor)** ere bai. *Fubola ere gustatze (j)ata. Baiña ni aspertu eitten naiz aguro.* Arrunta da bokalar-teko leherkaria ez ahoskatzea: **auro**.
- ♦ **AIDIAN:** Oso azkar, erraz. *San Isidro egunian, aidian jute giñan erro-merixara. Oso erraz. Aidian irabazi dixat pelota-partidua.*
- ♦ **AKASO:** Beharbada. *Karreteratik gora eññ biha'itxue etxiak, eta akaso eztiue kalterik eingo udan euzki pixkat kentziak. Biharbada eta igual* ere bai.
- ♦ **ALDIZ:** Alditan. **Bidar (Bider)** ere erabiltzen da. *Eta egunero juate giñuazen Plazentziara, bi-hiru aldiz bai.*
- ♦ **ALPERRIK:** Alferrik. *Alperrik habill Joxekin! Eztok sekula zintzotuko ta! Alperrik galdu:* DA aditza. Normalean ezezkakoetan. *Lasai laga (eg)jizu semia, eztok alperrik galduko ta!*; Ezezkako perpausetan ere saritan, baiezko esanahia duela: **Ez alperrik!** *-Esan diot holako latarik ez emateko. -Ez alperrik!*
- ♦ **ANTXITXIKA:** Korrika. **Saltaka** ere arrunta da. *Eta antxitxika jute giñan zortzi txerdietako mezetara. Antxintxika* aldaeran ere erabiltzen da, nahiz gutxiago.
- ♦ **ANTZERA:** Berdintsu. **Antzerako parezido:** Bi gauza berdintsuak di-

renean erabiltzen den esamolde adierazgarria. *Ni alperra nok, baiña heu ere... antzerako parezido!*

♦ **APROPOS:** 1. Berariaz, nahita. *Apropos ibiltzen da aldrebeskeixak esaten, jendia amorratzeko.* 2. Egoki. *Bai, han Errezildikan honutz. Euzkitza txaleta, holaxe apropos einda, terrenua itxitta.*

♦ **ARRAPATAKA:** Presaka, arineketan. *Hantxe e(g)uzkixa zauan arte, eta gero, illunabarrian, illuntzixan, lan asko eitteko, eta arrapataka hauraxe eññ ezinda. / Arrapataka baten etorri da.*

♦ **ARTIAN:** Iraganeko kontakizunak egiteko adverbioa, oraindik oraindik adverbioari dagokion iraganerako forma. *Gero badakik, gu ibili giñanian ez artian, baiña gerra onduan eskoletan eon tzuan diziplina bat, euskeraz hitz eittiakin... / -Eta, begiz jota bateonbat eukiko zendun, ala? -Ez, orduan gaztia nitzan artian. Artietan* forma ere bai, batzuetan, pluralean: *-Eta zeu kotxia manejatzen? -Ez, eztakitt nakixan, eztakitt artietan* kameta eukiko naban.

♦ **ASPALDI:** Antzina, behinola. *Aspaldj amaittu zuan gerria, baiña oin-dik azaltzen dok lurpian sartutako jendia.* Aspaldixan: *Aspaldixan etxuau alkar ikusi, eta afaritxo bat ein biha juau. Aspaldiko: Aspaldiko! Bizi al gera?*

♦ **ASTIAN-ASTIAN:** Astero. Berdin, **hillian-hillian, urtian-urtian**, eta abar.

♦ **ASTIRO:** Poliki, soseguz. **SOSIUZ** eta **POLIKI** ere bai.

♦ **ATZEOZ AURRERA (ipini, jantzi...):** adlag. Aldrebes. *Atzekoz aurre-ra jantzi dozu jertsia.*

Jesus Mari Makazaga

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

CORDON VILARCAHO

DEKORAZIOA

Korako eta barneko estalkiak
Zuloak estaltzen
Libreak eta argi-aldarriak, P.V.C.
Pinturak onak eta

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olaso kalea, 10 - 25 eta 28 maddalen
Tel. 943 749 570



Eibarko El Corte Inglés

Moda bizitzeko beste estilo bat



Beste estilo bat janzteko eta azken joerekin atsegin hartzeko, bertoko eta nazioarteko firma handien diseinuak edo markarik eksklusiboenak osagarri guztiekin: oinetakoak, poltsak, erlojuak, lurrinak eta kosmetikoak... Zeuretzat pentsatutako moda-estilo bat.



EGO GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. HITZ EGIN GUREKIN: 901 122 122

www.elcorteingles.es INTERNETEKO DENDA HANDIA



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA



250 LAGUNENDA KO
JANGELA

.....
ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean



Ozaeta Jauregia
Tel. 943 76 10 55
Faxa: 943 76 20 29
www.restaurantelasa.com
BERGARA

